



CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SA

Akziodunen Ohiko Batzar Orokorraren deialdiarekiko osagarria den iragarpena

COVID-19aren ondorioz osasunerako arrisku-egoera dela eta agintariak ekintza kolektiboak egiteko eta nazio mailako nahiz nazioarteko mugikortasunerako ezarritako murrizketak eta osasun-gomendioak kontuan hartuta, Batzar Orokorra egiteko aurrez ikusitako datan horiek indarrean jarraituko dutenez, akziodunei jakinarazi nahi diegu CAFeko Akziodunen Ohiko Batzar Orokorra, ekainaren 13 eta 14rako 12:00etarako deitutakoa, lehen eta bigarren deialdian, hurrenez hurren, bitarteko telematikoen bidez soilik izango dela, hau da, akziodunen edota haien ordezkarien presentzia fisikorik gabe, Administrazio Kontseiluak onartutako deialdi-iragarpenean aurreratu zen moduan. Deialdia 2020ko maiatzaren 8an Baloreen Merkatuaren Batzar Nazionalari jakinarazi zitzaionetik Sozietatearen webgunean eskuragarri dago (www.caf.net).

Interes orokorra gordetzeko, akziodunen nahiz bilera antolatzen parte hartzen duten langile eta gainerakoen osasuna zaintzeko eta akziodun guztien arteko tratu-berdintasuna bermatzeko egingo da Batzarra modu telematikoan, honako hauetan jasotakoaren arabera: COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko neurriak jasotzen dituen 2020ko martxoaren 17ko 8/2002 Errege Lege Dekretuko 41. artikulua, Erregistratzaileen Elkargoaren eta CNMVren arteko 2020ko apirilaren 28ko Komunikatu bateratua, 2020ko ekainaren 3ko Diputatuen Kongresuak baimendutako alarma-egoeraren seigarren luzapena, eta Batzordearen deialdi-iragarpenean bertan jasotakoa.

Akziodunei gogorarazi nahi diegu 8/2020 Errege Lege Dekretuko 41. artikuluan aurrez ikusitako edozein bitartekoren bidez parte hartu ahal izango dutela bileran, asistentzia telematikoaren, ordezkaritza eta urruneko botoaren eskubideak erabiliz deialdiaren iragarpenean horretarako deskribatutako kanalen bidez. Hemen jaso ditugu labur-labur:

1.- Ordezkatzeko eta urruneko botoa emateko eskubidea erabiltzea:

Urruneko botoa eta botoaren eskuordetzea posta arruntez, posta elektronikoz edo Sozietatearen webgunean (www.caf.net) helburu horretarako gaitutako plataforma informatikoaren bidez egin daiteke.

Botoa edo ordezkaritza posta-korrespondentzia bidez edo elektronikoki gauzatu nahi duten akziodunek Sozietateak haien esku utzitako formularioa bete beharko dute, edo bestela, akzioen gordailuzain den erakundeak nahiz IBERCLEARen parte hartzen duten erakundeetakoren batek igorritakoaren bidez, eta deialdiaren iragarpenean ageri den posta-helbidera edo helbide elektronikora bidali beharko dute.

Plataforma informatikoaren bidez botoa eman edo eskuordetu nahi dutenek, aldiz, Sozietatearen webgunearen bidez egin ahal izango dute (www.caf.net), “Botoa ematea eta eskuordetzea plataforma elektronikoen bidez”, han adierazitako arauen arabera.

Aurreko paragrafoetan zehaztutakoaren arabera emandako urruneko botoak edo boto-ordezkaritzak Batzar Orokorraren lehen deialdirako aurrez ikusitako data eta ordua baino 24 ordu lehenago jaso beharko ditu Sozietateak gutxienez.

2.-Batzar Orokorrean asistentzia telematikoa:

Eskubidea izanik, Batzar Orokorrera telematikoki joan nahi duten akziodunek, aurrez, 2020ko ekainaren 12ko 12:00ak arte, horretarako egokitutako plataforma informatikoan, webgune korporatiboko (www.caf.net) “Asistentzia telematikoa” atalean, han jasotako arauen arabera izena eman beharko dute.

Erregistro-ekintzan bertan, akziodunak edo ordezkariak idatziz bidali ahal izango dituzte egin nahi dituzten galderak edo hitzaldiak.

Behin erregistratutakoan, akziodunak eta haien ordezkariak plataformara konektatu ahal izango dira Batzarra egingo den eguneko 11:30etik 12:00ak artean, bertara joateko eta haien eskubideak erabiltzeko.

Botoa urrunetik ematen duten akziodunak nahiz Batzordera telematikoki joango direnak bertaratutakotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

Batzar Orokorra egitearekin lotutako edozein zalantza argitzeko, akziodunek Sozietatera jo ahal izango dute, posta elektronikoko bat bidaliz helbide honetara: accionistas@caf.net.

Aurrez ikusitakoaren arabera, Batzarra lehen deialdian egingo da.

Beasainen, 2020ko ekainaren 4an

Marta Baztarrica Lizarbe andrea

Administrazio Kontseiluko kontseilari idazkaria